

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Azterlanen eta Araubide
Judirikoaren Zuzendaritza*

*DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Estudios
y Régimen Jurídico*

GIZARTE EKONOMIAREN ESTADISTIKA 2007:

EMAITZEN AURRERAPENA

0. SARRERA

Ondorengo txostenak 2007. urterako Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren emaitzen Aurrerapena jasotzen du.

Emaitzak, Gizarte Ekonomiako (kooperatibak eta lan-baltzuak) laginaren 594 enpresei egindako landa-lanaren datu bilketari dagozkio. Lagina, 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresa guztiek eta aurrez zehazturiko estratuen arabera ausaz hautaturiko enpresa txikiagoek osatzen dute. Erreferentziazko unibertsoa eta erabilitako laginaren datu zehatzak ondorengoak dira:

2007an inkestatutako enpresen Unibertsoa eta Lagina.

	Unibertsoa	Lagina orotara
Araba	377	105
Bizkaia	1.094	241
Gipuzkoa	1.040	247
Nafarroa*	--	1
Kooperatiba Sozietatea	1.221	288
Lan-Baltzu Anonimoa	450	138
Erantzukizun Mugatutako Lan-Baltza	840	168
Nekazaritza	42	11
Industria	809	220
Eraikuntza	341	101
Zerbitzuak	1.319	262
OROTARA	2.511	594

*Egoitza nagusiaren kokapenari dagokio, hots, inkesta bete den lekua. Ikerketa kontutan izanik, E.A.E.an kokatuta dauden establezimenduak soilik hartu dira kontutan.

Laginak \pm %3,6ko errore estatistiko maila bermatzen du %95,5eko konfiantza mailarekin.

Datu bilketa 2007ko Azaroan zehar burutu da, posta bidezko prozesua eta telefono bidezko errefortzua bateratuz. Gauzatutako jarduera 2007an E.A.E.n zeuden enplegu maila eta establezimenduei buruzko informazioa jasotzean oinarritu da, baita urte bererako aurreikusia zegoen fakturazio multzoari buruzko informazioan ere.

Emitza nagusien Aurrerapenaren aurkezpena bi multzotan egituratzen da:

- Lehenengo zatian, 2007ko zifra handiak aurkezten dira, 2006ko garapen dinamika erreferentzia izan duelarik. Zifra hauek establezimendu, enplegu eta aurreikusitako fakturazioan oinarritzen dira.
- Bigarren zatian, jarduera sektore, forma juridiko eta lurralde historikoka behatutako dinamika zehazten da.


1.2007KO GIZARTE EKONOMIAREN ZIFRA NAGUSIAK

1.1.ENPLEGU GARAPENA, ESTABLEZIMENDUAK, FAKTURAZIOA


2007ko zifrek 2004-2006 biurtekoan **behatutako dinamika positiboaren** jarraipena adierazten dute.

Establezimendu kopurua 2006 eta 2007 urteetan zehar %2an gehitu zen, 3.167raino iritsi arte. Enplegu zifrak gehikuntza handiagoa jasan du, %2,6koa, 2007an 64.719 langile izatera iritsiz. Honek, 2006a kontutan hartuz, establezimenduen tamainaren batezbestekoa mantentzen dela adierazten du (establezimendu bakoitzeko 20,4 langile).

2002-2007ko Enpleguaren garapena



2002-2007ko Establezimenduen garapena




	2004	2006	2007
Establezimenduen tamainaren batezbestekoa (Enpleguak)	18,4	20,4	20,4

Bestalde, ekitaldiaren fakturazioaren zenbateko orokorra 10.314,9 milioietan estimatzen da. Horrela, zentzu nominalean, 2006etikiko %8ko hazkunde bat aurreikusten da.

Negozio zifraren deflaktatutako hazkunde nominal honek, salmentaren hazkunde erritmoa enpleguaren hazkudearen gaitetik % -4,8an¹-ezartzen du.

¹ 2007 urteko PIB Deflaktatzailearekin kalkulaturako zifra E.A.Eko Aurrekontu Orokorrek: % 3,3

2006-2007ko fakturazio garapena (Mila Eurotan)



Urteko garapenaren konparaketa: Enplegua, Establezimenduak, eta Fakturazioa (Nominala eta erreala)

Enplegua		Establezimenduak		Fakturazioak		
Δ04/06 Urteko batezbestekoa	Δ06/07	Δ04/06 Urteko batezbestekoa	Δ06/07	Δ04/06 Urteko batezbestekoa	ΔNominala	06/07 Errelata
%2,0	%2,6	%1,1	%2,1	%15,5	%8,3	%4,8


Enplegu eta establezimendu parametroetarako 2006-2007rako garapenak 2004-2006an baino mesedegarriagoak agertzen dira (urteko hazkundeak). Hala ere, fakturazioaren hazkundera 2004-2006 biurtekoaren azpitik geratuko litzateke (%8,3 lehengo %15,5aren aurrean)².

1.2.ENPLEGUAREN ETA FAKTURAZIOAREN ENPRESA DINAMIKA

Ikuspuntu kualitatiboago batetik, enpresa-garapen aukerak fakturazio eta enplegu mailaren hazkunde, jaitsiera eta mantentzearen aurreikuspena aintzakotzat hartuz aztertzen badira, zifra nagusien desglosearen deskribapena honakoa da:

Fakturazio agregatuaren garapenari dagokionez, **gehiengoak partekatutako garapena adierazten du**. Enpresen gehiengoak (%65,8), 2006a kontutan izanik, jarduera, salmenta zifren hazkunderarekin ixteko aurreikuspena du. %11,2k baino ez du azaltzen joera negatiboa.


2007ko fakturazio dinamikaren aldaera (enpresen %a 2006ko garapen aurreikuspenaren arabera)



² MCCk argitaratutako datuen arabera, 2005-2006 epean taldeak jasan zuen

Dinamika positibo hau enplegu esparrura zabaltzen da, baina maila txikiago batean. Errealitatean, Euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresen %65ak 2006ko jarduerako enplegu maila mantentzen du, eta horietatik %19ak enplegu galera izan duela behatzen da. Beraz, 2006-2007ko Gizarte Ekonomia sektoreko enplegu mailaren hazkunde orokorra, enpresen %16ak jasan duen enpleguaren garapen positiboan, bakarrik, oinarritzen da.

2007ko enpleguaren dinamika aldaera
(enpresen %a 2006ko garapenaren arabera)



2. 2006-2007KO DINAMIKAREN ANALISI ZEHATZA

2.1. SEKTORE GARAPENA

Sektore ikuspuntutik ondorengo datuak nabarmentzen dira:

Industriak fakturazioaren portaera dinamikoagoa azaltzen du (+ %9,3, sektore erritmo altuena), enpleguarena baino (+ %0,9). 2007ko datuek, zentzu honetan, pertsonalaren hazkunde apala eta langile bakoitzeko fakturazioaren hazkundea uztartzen dituen eredu bat adierazten dute. **Eraikuntzaren** garapenak, antzeko joera adierazten du, enpleguaren %0,9ko eta fakturazioaren %6,1eko hazkundearekin.

Zerbitzu sektoreko enpresak, industriaren fakturaziora hurbiltzen dira %7,2rekin. Kasu honetan, aldiz, zifra ekonomikoen garapen positiboa enplegu mailaren hazkunde esanguratsuekin batera dator (+ %4,6). Datu ekonomiko errealek fakturazio/langile maila egonkorra adierazten dute.

Sektorearen araberako urteko garapenaren konparaketa: Enplegua, Establezimenduak eta Fakturazioa (nominala eta erreala)

Jarduera sektorea	Enpleguak	Establezimenduak	%Δ07/06	
			Fakturazio nominala	Fakturazio erreala
Industria	+%0,9	+%1,8	+%9,3	+%5,8
Eraikuntza	+%0,9	+%1,9	+%6,1	+%2,7
Zerbitzuak	+%4,6	+%2,6	+%7,2	+%3,8

Sektorearen araberako produktibitatearen garapenaren konparaketa (nominala eta erreala)

Jarduera sektorea	%Δ07/06 Produktibitatea	
	Nominala	Erreala
Industria	+%8,2	+%4,8
Eraikuntza	+%5,2	+%1,8
Zerbitzuak	+%2,5	-%0,8

2.2. FORMA JURIDIKOAREN ARABERAKO GARAPENA

Forma juridikoen araberako datuen ikerketak ere, portaera ezberdinak agerian jartzen ditu. Kooperatibek fakturazio hazkunderik handiena 2007. urtean agertzen dute, 2006ari begira, %8,5eko hazkunde nominala aurreikusiz. Garapen hau, establezimendu kopuruaren (%2,1) eta enpleguaren (%2,3) handitzearekin bat dator.

B.L.M..aren fakturazio hazkundera, zentzu nominalean, kooperatibena baina zertxobait txikiagoa da (%7,7). Hala ere, garapen hau, establezimenduen kopuruaren batezbestekoaren hazkunde oso handiarekin (%4,0) eta, batez ere, enpleguaren hazkunderarekin bat dator. 2006 eta 2007 urte bitartean, B.L.M..en enpleguaren zifra %8,4an handitu zen. Dena den, enpleguari dagokionez nabarmentzen den portaera positibo honek, zentzu errealean, B.L.M..etan pertsonako fakturazioaren jaitsiera bat ezkututzen du. Mota honetako enpresek Mikroenpresarial oinarria duen garapen mota dutela bistan da.

B.A.M..ek ere fakturazio hazkunde positiboa agertzen dute, %6,4ekin. Hala ere, establezimenduen zifrari dagokionez egonkortzeko joera azaltzen dute (%0,2) eta enpleguaren hazkundera %0,7ra bakarrik iristen da, B.L.M.. eta kooperatibetan ematen denatik oso urruti.

Forma juridikoen araberako urteko garapenaren konparaketa: Enplegua, Establezimenduak eta Fakturazioa (nominala eta erreal)

Forma Juridikoa	Enplegua	%Δ07/06		
		Establezimenduak	Fakturazioa nominala	Fakturazioa erreal
Kooperatibak	+%2,3	+%2,1	+%8,5	%5,0
B.A..ak	+%3,6	+%2,6	+%6,8	%3,3
B.A.M..ak	+%0,7	+%0,2	+%6,4	%3,0
B.L.M..ak	+%8,4	+%4,0	+%7,7	%4,2

Forma juridikoen araberako produktibitatearen garapenaren konparaketa (nominal eta erreal)

Forma Juridikoa	%Δ07/06	
	Nominala	Erreal
Kooperatibak	+%6,0	+%2,6
B.A..ak	+%3,1	-%0,2
B.A.M..ak	+%5,6	+%2,3
B.L.M..ak	-%0,7	-%3,8

2.3. GARAPENA LURRALDEKA

Lurralde dinamikari buruz esan beharra dago, lurralde bakoitzak duen portaerak berezitasun juridikoak nahiz sektorekakoak islatzen dituela. Gipuzkoak, fakturazio hazkunde handiena agertzen du $-\%11$ nominala-, baina enpleguari dagokionez, hazkunde txikiena izan duela ikusten da, $\%1,7$. Beste aldean, Arabak, bi hazkunde mailak ia berdintzen ditu, ($\%5,0$ eta $\%4,5$ fakturazioa eta enplegua, hurrenez hurren). Bizkaia, tartean kokatzen da, fakturazioaren $\%7,6$ ko hazkundearekin eta enpleguarena berriz, $\%3,3$ rekin.

Lurraldearen araberako urteko garapenaren konparaketa: Enplegua, Establezimenduak eta Fakturazioa (nominala eta erreal)

Lurralde historikoa	%Δ07/06			
	Enplegua	Establezimendua	Fakturazio nominala	Fakturazio erreal
Araba	$+\%4,5$	$+\%1,4$	$+\%5,0$	$\%1,6$
Bizkaia	$+\%3,3$	$+\%1,5$	$+\%7,6$	$\%7,4$
Gipuzkoa	$+\%1,7$	$+\%3,6$	$+\%11,0$	$\%4,2$

Lurraldearen araberako produktibitatearen garapenaren konparaketa (nominala eta erreal)

Lurralde historikoa	%Δ07/06	
	Nominala	Erreal
Araba	$+\%0,4$	$-\%2,8$
Bizkaia	$+\%7,4$	$+\%4,0$
Gipuzkoa	$+\%5,8$	$+\%2,5$

**ERANSKINA
GARAPENAREN DINAMIKA**

Ondorengo eranskinak sektorearen xehetasunak jasotzen ditu lurralde eta forma juridikoaren arabera. 2006 kontutan izanik, 2007rako enplegu eta fakturazioaren garapen aurreikuspena azaltzen dute, enpresen banaketari lotutako analisiaren ikuspuntutik begiratuta.


Jarduera sektorearen arabera, **Industria sektorearen dinamika positibo onuragarriagoa** egiaztatzen da, enpleguaren sortzeari dagokionez, **hirugarren sektorearekin** alderatzen bada. Horrela hirugarren sektorean, 2006a erreferentzia izanik, enpresen %71,1ek adierazten du pertsonalaren dimentsioak ez direla aldatu 2007an zehar (%53,1 industrian). Industria enpresen %22,8k enpleguaren mailaren igoera bat adierazten du, %17 zerbitzu sektorean eta eta %15,4 eraikuntzan.

Sektorearen **fakturazio aurreikuspena**, hiru sektoreetan onuragarria izanik, Industria sektorean ere zertxobait positiboagoa da. Horrela, 2007an enpresen %67k fakturazioaren hazkunde bat aurreikusten du (%64,9 Hirugarren Sektorean eta %63,1 Eraikuntzan)


SEKTOREAREN ARABERAKO GARAPEN DINAMIKA (ENPLEGUA ETA FAKTURAZIOA)

Industria



Enplegua





Fakturazioa



Eraikuntza



Zerbitzuak




Forma juridikoaren arabera, hiru formatu juridikoek, 2007ko enplegu dinamikari buruz enpresek duten pertzepzioari dagokionez, antzeko banaketa azaltzen dute. Hala ere, B.A.M.etan enplegu aurreikuspen proportzio handiagoa antzematen da (Zifren arabera enplegu maila %23,5 handitzen dute eta kooperatibek eta B.L.M.ek %17.-18an).

Fakturazioari dagokionez, B.L.M.en kasuan askoz baikorragoak dira: enpresen %69,3k aurreikuspen maila altuagoa nabarmentzen dute, kooperatibek %65,1 eta B.A.M.ek %61,2.


FORMA JURIDIKOAREN ARABERAKO GARAPEN DINAMIKA (ENPLEGUA ETA FAKTURAZIOA)

Kooperatibak



Enplegua





Fakturazioa



B.A.M.ak



B.L.M.ak





Geografikoki, **hiru lurralde historikoetan, enpresen 3/5 baino gehiagok enpleguaren dimentsioa mantentzen dute**, hala ere, Araba da langileak gehitzea aurreikusten duten enpresa kopuru handiena duena (%20,2, %19,1 Bizkaian, eta %17,2 Gipuzkoan).



Enpresa gehienek hiru lurraldeetan fakturazio mailan gorakada bat aurreratzen dute, dena den, Bizkaian portzentaia hau zertxobait altuagoa da (%68,6 , Araban %64,4 eta Gipuzkoan %62,8).

LURRALDEAREN ARABERAKO GARAPEN DINAMIKA (ENPLEGUA ETA FAKTURAZIOA)

Araba



Bizkaia



Gipuzkoa

